



Elorrioko udala

IRAGARKIA

Elorrioko Udalak 2023/2024 ikasturtean 2 urtera bitarteko umeak haur-eskoletan dituzten familientzako dirulaguntza deialdia onartzea (2024-00026 espediente)

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko otsailaren 2an egindako bilkuran, 2 urtera bitarteko umeak haur-eskoletan dituzten familientzako 2024rako udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAO on argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAO on argitaratua).

Elorrio, 2024ko apirilaren 11n.

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea



ELORRIOKO UDALAK 2023/2024 IKASTURTEAN 2 URTERA BITARTEKO UMEAK HAUR-ESKOLETAN DITUZTEN FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. artikulua. Xedea

Arau hauen xedea da Elorriko erroldatuta dauden eta 2023/2024 ikasturtean zehar 2 urtera bitarteko seme-alabak (2022an, 2023an eta 2024an jaioak) haur-eskoletan dituzten familientzako diru-laguntzen emakida arautzea.

2. artikulua. Aurrekontu kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza hauek onartzeko dagoen kreditu erabilgarria 2000,00 eurokoa da eta 2024 ekitaldiko 3200.480.08 (Elorrioko umeen gurasoak) aurrekontu-aplikaziotik ordainduko da.

3. artikulua. Onuradunak

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistari gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, xedatzen du hirugarren artikuluan eta 17 (estatistikak eta azterlanak) eta 19.4 artikuluetan (hizkera inklusiboa eta ez-sexista) jasotzen diren printzipio orokorrak betetzeko eskatuko zaiela botere publikoen laguntzen edo dirulaguntzen onuradun direnei, udalaren eta onuradunen arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian.

Familia-unitatea osatzen duen aita edo ama izan daiteke dirulaguntza honen onuraduna, laguntzak helburu duen seme-alabarekin erroldatuta egoteaz gain, familia-unitatearen eraketa zehazteko zenbatutako seme-alaba guztiekin batera egon beharko duena.

Partekatutako zaintza emoten denean, aita eta amaren arteko adostasuna ez dagoenean, bakoitzari dagokion zati proportzionala aitortuko zaio kontuan hartuta seme/alabaren zaintzarako onartu zaion denbora.

Onuraduna ez da egongo 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Orokorra, 13. artikuluan edo Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorra 10. artikuluan jasotzen dituen egoeretako batean ere ez.

4. artikulua. Eskabide-orriak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

4.1.- Haur-eskolan edo haurtzaindegian matrikulatutako seme edo alaba bakoitzeko eskabide-orri bakarra onartuko da –lehenengo aurkezten dena-.

4.2.- Eskabide-orriak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Erabili beharreko eskabide-orria I. eranskinean agertzen dena izango da. Berau Elorrioko udaletxeko HAZ -udal erregistroa- bulegoan (Herriko Plaza) aurkeztuko da 08:00 eta 14:30ak bitartean. Bestalde baita, eskabide-orriak aurkeztu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako bideen bitartez.

4.3.- Eskabide-orriekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabide-orria sinatzen duenaren NANaren fotokopia.



- b) Familia osatzen duten kideen 2022 ekitaldiko Errenta Aitorpena –fotokopia-. Errenta Aitorpena egiten ez den kasuan, hau egiaztatzen duen agiria (BFA. Ogasuna).
- c) Familia-liburuaren fotokopia (inskripzio guztiak), edo dirulaguntzaren xede den pertsonaren jaiotza-ziurtagiria.
- d) Haur-eskolako matrikula-agiria ordu-kopurua zehaztuta –fotokopia-.
- e) Erantzukizunpeko adierazpena xede bera finantzatzeko beste entitate edo erakunde batzuei eskatutako edo eskatzea aurreikusi diren dirulaguntzak zeintzuk diren zehaztuko direnean, hau da: erakundearen izena eta jasotako dirulaguntza edo eskatutakoa. Honetarako II. Eranskineko eredia erabiliko da.
- f) Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztagiria. Ziurtagiri hauen ordeztu, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erantzukizunpeko adierazpen bat (II. eranskina) aurkeztu ahal izango du, Dirulaguntzen Lege Orokorren araudia onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikuluari jarraiki.

4.4.- Aurkeztutako eskabide-orrian edo dokumentazioan zerbait falta bada edo zuzendu daitekeen akatsen bat badago, eskatzaileari 10 (hamar) egun baldiodun emongo zaizkio falta diren agiriak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko. Eta jakinaraziko zaio okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

4.5.- Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena emoten dio Elorrioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailari udal Diruzaintza sailean udalarenak diren eta ordaindu behar diren zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen informazioa eskatzeko.

5. artikulua. Betebeharrekoak

Elorriko erroldatuta egotea. Udal hezkuntza sailak egiaztatuko duen baldintza.

6. artikulua.- Onuradun izateko debekua

Ezingo dira onuradun izan administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa jaso duten pertsona edo entitateak.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarritakoak, xedatzen dituzten betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenaren edo martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.



Kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardueran sexuan oinarrituta diskriminatzen duten elkarteak edo erakundeak.

7. artikulua. Baldintza ekonomikoak

7.1 Familia-unitatearen errenta-maila finkatzeko, sarrera garbiak hartuko dira kontuan. Sarrera horiek zerga-oinarri orokorrari familia-unitateak umea haur-eskolan matrikulatu aurreko aldian egindako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazioaren kuota likidoa kentzearen emaitzazkoak izango dira. Zerga-oinarri berezia ere zenbatuko da.

7.2 Banakako aitortpenen kasuan, bi aitortpenen batura izango da kalkulua.

7.3 Estimazio objektiboko edo zuzeneko estimazioko zerga-erregimenera bilduriko jarduera enpresarialak eta profesionalak badira, irizpide errealak aplikatuta egingo da errendimenduen estimazioa.

7.4 Ama/aita bakarra denean kide bat gutxiago zenbatuko da. Ama/aita bakarra esaten denean ulertuko da ama/aita ezkongabeak, judizialki banandutakoak, dibortziatuak, ezkontza deusezak edo alargunak egindako eskaera adinez txikia den seme edo alabaren zaintza eskusiboa duenean. Eta bananketaren, dibortzioaren edo ezkontza deusezaren ebazpen judizialarekin batera ama edo aitaren eta seme-alaben arteko neurriak ezartzeko hitzarmen arautzailea edo egoera egiaztatzen duen hitzarmen arautzailea aurkeztu beharko du zaintza nori dagokion egiaztatzeko.

1. tarte <i>Primer tramo</i>		2. tarte <i>Segundo tramo</i>		3. tarte <i>Tercer tramo</i>		4. tarte <i>Cuarto tramo</i>	
*Kide kop. *Nº <i>personas</i>	Errenta mugak <i>Límites renta</i>	*Kide kop. *Nº <i>personas</i>	Errenta mugak <i>Límites renta</i>	*Kide kop. *Nº <i>personas</i>	Errenta mugak/ <i>Límites renta</i>	*Kide kop. *Nº <i>personas</i>	Errenta mugak <i>Límites renta</i>
3	18.835,52	3	23.116,12	3	31.583,78	3	47.388,31
4	21.660,71	4	26.582,10	4	36.319,14	4	54.493,24
5	24.909,60	5	30.570,53	5	41.767,99	5	62.668,70
6	28.646,72	6	35.156,38	6	48.035,85	6	72.072,99
7	32.943,06	7	40.429,09	7	55.238,87	7	82.880,40
8	37.885,49	8	46.494,01	8	63.527,04	8	95.315,97
9	43.567,47	9	53.466,85	9	73.053,13	9	109.608,91
10	50.102,14	10	61.488,46	10	84.015,75	10	126.057,20

8. artikulua. Zenbatekoa

8.1 Dirulaguntzen zenbatekoa honako tarte hauen arabera izango da:

- %30 lehen tarteko familia-unitateentzat.



- %22 bigarren tarteko familia-unitateentzat.
- %15 hirugarren tarteko familia-unitateentzat.
- %7,5 laugarren tarteko familia-unitateentzat.

8.2 Langile Autonomoen Araubide Berezian dauden pertsonak hirugarren tartean sartuko dira.

8.3 Familia-unitate batek 0tik 2 urtera bitarteko ume bat baino gehiago matrikulatuta baditu eta unitate hori ez badago agindu honetan zehaztutako hirugarren tarteko dirulaguntza jasoko du gehienez ere matrikulatuta dagoen haur bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, betiere familia-unitate horren urteko diru-sarrera garbiak 64.226,62 eurotik gorakoak badira.

8.4 Jasotako dirulaguntza osoak, ezingo du inolaz ere 2023ko irailetik 2024ko uztaile bitarteko aldirako, biak barne, ume bakoitzeko familia-unitateak duen zuzeneko kostua gainditu.

9. artikulua. Prozedura, Instrukzioa eta Erabakia

Dirulaguntzen instrukzio organoa osatuko dutenen arteko genero parekidetasuna egongo da. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kidetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, berriz, bi sexuek ordezkaritza dutenean.

Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz.

Prozedura, lehiaketa askea izango da.

Instrukzioa

9.1 Eskabide-orriak aurkezteko epea itxi ondoren arloko zerbitzu teknikoek aurkeztutako eskabide-orriak eta agiriak aztertuko dituzte eta hasierako balorazioa egingo dute. Balorazio hori Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak txostena eta balorazioa ikusi ondoren diktaminatu egingo du eta Tokiko Gobernu Batzarrera bialduko du, honek erabakia hartzeko.

9.2 Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Gehieneko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik barik interesdunek ulertu beharko dute eskaera, administrazio-isilbidez, atzera bota dela.

9.3 Erabakiaren gaineko jakinarazpena interesdunei urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikulua eta hurrengoek aurreikusten dutena jarraituz egingo da.

9.4 Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emongo dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertze errekurtsoa tartekatze aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatze Bilboko dagokion auzitegian.



Hori guztiori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

10. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Dirulaguntza hauek, helburu bera duten beste administrazio edo ente publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoak, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak dira, ez bada diru-laguntzen berezitasunetarikoa bat bateragarria ez izatea. Edozein modutan, dirulaguntza inoiz ez da izango diruz laguntzen den proiektuaren gastua baino handiagoa.

11. artikulua. Ordainketa

11.1 Deialdiaren gaineko erabakia hartuta eta interesdunei erabakiaren gaineko jakinarazpena egin ondoren, hasieraz onartutako zenbatekoari dagokion %80a ordainduko da. Hau aurreordainketa izango da, eta ez da bermerik aurkezteko premiarik izango.

11.2 Ordainketa, transferentzia bidez, interesdunak emondako kontu zenbakian egingo da, gehienez, erabakia hartu den egunetik hurrengo hilabetearen barruan.

12. artikulua. Zuriketa

12.1 Ikasturtea, edo dirulaguntzaren xede zen programa edo jarduerak burutu ondoren dirulaguntza behar moduan erabili dela justifikatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira eta gainfinantzaketarik ez dela egon egiaztatu beharko da.

Edozein kasutan, dirulaguntza justifikatuko duten agiriak 2024ko irailaren 30a baino beranduago ez dira aurkeztuko, eta hala dagokionean, onartutako zenbatekoaren gainerako %20a ordainduko da.

12.2 Justifikazioa zuriketa-kontu bidez egingo da, honako informazio hau izango duena:

a) 2023/2024 ikasturtean haur-eskolan ibili izana egiaztatzen duen asistentzia-ziurtagiria haur-eskolako zuzendaritzak luzatuta.

b) Erantzukizunpeko Adierazpena beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzen zenbatekoak adieraziz, kasua bada. (II. Eranskina).

13. artikulua.- Itzulketa

13.1 Itzulketa, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen duten moduan egingo da.

13.2 Edozelan ere, jasotako zenbatekoa itzuliko da justifikatzeko agiririk aurkeztu ez denean, edo behar moduan justifikatu edo behar beste agiri aurkeztu ez denean. Osorik bete ez denean, itzulketa ez-betetzeari dagokion zenbatekora mugatuko da. Bardin egingo da gainfinantzaketa dagoela egiaztatzen bada dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agirietan.

13.3 Haur-eskolak egindako asistentzia-ziurtagiria egiaztatu eta gero ikusten bada haur-eskolako benetako asistentzia eskabide-orrian esandakoa baino txikiagoa dela, hasieraz onartutako zenbatekoaren gainean hainbanaketa egingo da.



13.4 Asistentzia-ziurtagiria aurkeztu ezik ordaindutakoa itzultzea eskatuko da Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta hau garatzen duen Erregelamenduak aurreikusten dutena jarraituz.

14. artikulua. Datu-babesa

Interesdunak ematen dituen datuak deialdi honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.

Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein mementotan atzera bota ahal izango du lehen adierazitako onarpena.

Halaber, erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean.

15. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako Dirulaguntzen Lege Orokorrak, 38/2003, legea garatzen duen Erregelamenduak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen dutena aplikatuko da